



DEBAko UDALA

2017SPLE0001
1. BILERA: OHIKOA 2017-01-26

Udalbatzarraren bilkura-akta

Bilkura: arauz deitutako ohizko Udalbatzarra

Zenbatgarrena: lehenengoa

Eguna: 2017/01/26

Hasiera-ordua: 19:30

Amaiera-ordua: 20:05

Onarpen-eguna: 2016/02/23

Bertaratutako zinegotzi hautatuak:

PEDRO M^a BONGOETXEA LOIOLA
AITOR SALEGI IRURETA
ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA
M^a LUISA ALBIZU BEITIA
IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA
MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN
JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN
MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA
CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE
UNAI LEKUBE ARANBERRI
IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA
ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:

AIMAR LASA URKIRI
ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

Bertaratzeak eta irteerak

Ane Egidazu zinegotzia gai zerrendako 2. puntua bozkatu aurretik bertaratu da.


Gora-beherak



DEBAko UDALA

Aztergaiak:

1. Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2016/12/028).
2. 18N (AU 18) 2B lursaila "Itziarko Poligonoa". Comercial Leku Ona S.L.k sustatua.
Xehetasunen Azterlanari behin betiko onespena emateko proposamena.
3. 2016 urterako hirugarren adineko zerbitzuen prezioen proposamena.
4. Debako Udala eta Caritas artean hitzarmena sinatzeko proposamena.
5. Alkatetza Dekretuen berri ematea.
6. Eskariak eta galderak.



DEBAko UDALA

Esan-eginak eta erabakiak

1.- Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2016/12/28)

2016ko abenduaren 28ko bilkuraren aktari zuzenketa bat egin zaio gai zerrendako 7. puntuko *iritziak eta galde erantzunak* atalean. Ondoren, bozkatu egin da eta aho batez onartu da, Udalbatza osatzen duten legezko hamahiru zinegotzietatik hamar bilkuran direla.

2.- 18N (AU 18) 2B lursaila “Itziarko Poligonoa”. Comercial Leku Ona S.L.k sustatua. Xehetasunen Azterlanari behin betiko onespena emateko proposamena.

Zinegotziek esku artean dutena Hirigintza eta Etxebizitza batzorde informatzailearen proposamena da.

Aurrekariak

Comercial Leku Ona S.L.-k sustatutako eta Norfer S.L. ingenieros-ek idatzitako, 18N (AU 18) 2B lursailaren “Itziar poligonoa”, Xehetasunen Azterlana izapidetzeko eskaera jaso zen Udaletxean.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98. Artikuluan jasotzen da xehetasunen-azterketak izapidetu eta onartzeko eman beharreko urratsak.

“98. artikulua.– Xehetasun-azterketak izapidetu eta onartzea.

- 1.– Xehetasun-azterketei eskumena duten udalek emango diete hasierako onespena hiru hilabeteko epean.
 - 2.– Hasierako onespena eman ondoren, jendaurrean jarriko dira 20 egunez, dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaraturik, nahi duenak aztertu eta alegazioak egin ditzan.
 - 3.– Xehetasun-azterketei behin betiko onespena ematea udalari dagokio; horretarako, hiru hilabeteko epea izango du, hasierako onespena ematen zaienetik.
- Epe hori ebazpenik jakinarazi gabe igarotakoan, xehetasun- azterketa alderdietako batek eskatuta aurkeztu baldin bada, interesdunak ezetsia izan dela iritzi ahal izango dio.

Beraz, tramitazioari dagokionez, hasierako onarpenera eman zitzaion alkatetza Dekretu bidez 2016ko irailaren 28an.

Jarraian, jendaurrean jarri zen 20 egunez, azken argitalpenetik kontatzen hasita. Horretarako, 2016ko urriaren 3ko datarekin Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen erabakia eta egunkarian eman zen jakitera 2016ko azaroaren 14an. Udaleko iragarki taulan ere jarri zen.

Legez ezarritako epean ez da alegaziorik jaso.



DEBAko UDALA

Erabakia.

Aurrekarien berri izanda, Udalbatzarrak aho batez hartu du ondoko erabakia, Udalbatza osatzen duten hamahiru zinegotzietatik hamaika bilkuran direla, horretarako aintzat hartu du Hirigintza eta Etxebizitza batzorde informatzailearen proposamena.

Lehenengo.- Debako Arau Subsidiarioetako, 18N (AU 18) 2B lursailaren “Itziar poligonoa”, Xehetasun Azterlana behin betiko izaeraz onartzea.

Bigarren.- Erabaki hau Comercial Leku Ona SL-ri jakinaraztea.

Hirugarren.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaraztea.

3.- 2017 urterako hirugarren adineko zerbitzuen prezioen proposamena.

Aurrekariak

M.^a Eugenia Miranda, Gizarte laguntzaileak, 3. adineko zentroko zerbitzuen 2017ko prezioei buruzko txostena aurkertu du eta KPIaren igoera (%1,5) aplikatzea proposatzen du.

Iritziak eta galde erantzunak

Marilu Albizu zinegotziak prezio publikoei buruzko azalpenak eman ditu eta tabernaren kudeaketarako kontratuaren berri eman du.

Jose Luis Albizu zinegotziak esan du, aurreko urtean Arbil Elkartearekin bilera egin zela prezioak adosteko eta Batzordean ere landu zela gaia eta hori aurten ez dela egin. Gaineratu du, pentsioen igoera %1,5 baino txikiagoa izan dela.

Mariluk esan du, aurten taberna itxita dagoenez, ez direla prezioak Arbil Elkartearekin landu eta ez dakiela zein punturaino merezi duen urtero-urtero horrela egitea.

Maidar Zubikarai zinegotziak esan du, jardunbidea ez dela egokia izan eta pentsioen igoera %0,25ekoa izan dela, ondorioz, abstenitu egingo direla.

Mariluk proposatu du, kontuan edukita kafetegia itxita dagoela, bakarrik ileapaindegi eta podologia zerbitzuen prezioak onartzea.

Zinegotziak ados daude proposamen horrekin.



DEBAko UDALA

Erabakia.

Aurrekarien berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, Udalbatza osatzen duten hamahiru zinegotzietatik hamaika bilkuran direla:

Lehenengo.- Onartzea 2017 urterako hirugarren adineko podologia eta ileapaindegi zerbitzuen prezioak, laburpen honen arabera:

ILEAPAINDEGIKO PREZIOAK / TARIFA DE PRECIOS PELUQUERIA

	2017
GARBITU ETA MARKATZEA / LAVAR Y MARCAR	7,12
PERMANENTEA / PERMANENTE	23,75
PERMANENTE ERDIA (superior) / MEDIA PERMANENTE (superior)	18,37
TINTEA / TINTE	15,22
TINTE ERDIA / MEDIO TINTE	11,57
MOZTEA / CORTE	5,08
ILEA KONPONTZEA / ARREGLO PELO	3,25
ORRAZTEA / PEINAR	2,75
ESKUZ LEHORTZEA / SECADOR DE MANO	8,12
KREMA / CREMA	1,62
BEKAINAK / CEJAS	1,62
DEPILAZIOA, GOIKO EZPAINA / DEPILACION LABIO SUPERIOR	2,03
KOLOREDUN PLIZA / PLIS COLOR	2,49
PLIS ARRUNTA / PLIS NORMAL	2,42
BITAMINADUN PLIZA / PLIS VITAMINAS	3,25
TINTE ETA PERMANENTEA / TINTE Y PERMANENTE	38,57
DISTIRAK / BRILLOS	22,94
APARRA / APARRA	1,73



DEBAKO UDALA

PODOLOGIAKO PREZIOAK/TARIFA DE PRECIOS PODOLOGIA

ZERBITZUA	2017
PODOLOGIA	12,80

Bigarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea

4. Debako Udala eta Caritas artean hitzarmena sinatzeko proposamena.

Zinegotziek esku artean dutena Gizarte Politikarako batzorde informatzailearen proposamena da.

Iritziak eta galde erantzunak

Marilu Albizu zinegotziak Debako Caritasek joan den urtean eman zituen eta aurrean emango dituen zerbitzuen eta egitasmoen berri eman du eta hitzarmenaren inguruan esan du, forma ematea falta dela.

Maidar Zubikarai zinegotziak galdetu dio, erabiltzaileen zentsorik ba ote dagoen eta horien joera goranzkoa ote den.

Mariluk erantzun du, badagoela zentsu bat eta zenbaki zehatza ez dakien arren goranzko joera daukala.

Erabakia.

Gizarte Politikarako Batzordearen proposamenaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru kideetatik hamaika bilkuran direla:

Lehenengo.- Debako Caritas Elkartarekin hitzarmena sinatzea Calbeton Zumardian dagoen higiezina doan lagatzeko elikagaiak gorde eta banatzeko.

Bigarrena.- Hitzarmenaren iraupena lau urtekoa izango da, sinatzen den egunetik kontatzen hasita.

Hirugarrena.- Alkateari ahalmena ematea Udalaren izenean hitzarmena sinatzeko.



DEBAko UDALA

Laugarrena.- Erabaki hau Debako Caritas Elkarteari jakinaraztea.

8.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.

Idazkariak informatu du ondorengo Dekretu hauek eman dituela Alkateak:

2016ko Alkatetza Dekretuak

129	2016/12/26	Eguneko zentroan eta jubilatuen etxean bi forjatu eraikitzea. Lanak egiteko gastua baimentzea.	
130	2016/12/26	“Memoria de excavación del yacimiento arqueológico de Praileaitz I” txostena ordaintzea	
131	2016/12/26	Tene Mujika sariko epai-mahaikideei ordaintzea	
132	2016/12/26	Anima-Deba jaialdia antolatzekeo gastuak baimentzea	
133	2016/12/26	Urte Berriko ferria antolatzekeo gastua baimentzea	
134	2016/12/29	117/2016 Alkatetza Dekretuaren aurka Zeleta S.L.-k ezarritako Berraztertzeko Errekurtsoa, Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2. epaitegira eramatea	

2017ko Alkatetza Dekretuak

1	2017/01/02	Gizarte zerbitzuetan lan-kontratruko langile bat kontratatzea 2017/01/02an	
2	2017/01/05	Udaltzainetan gaixotasun baja bat ordezkatzeko bitarteko funtzionari bat izendatzea	
3	2017/01/10	Udal erroldan baja ematea	
4	2017/01/10	Udal erroldan baja ematea	
5	2017/01/18	Euskara teknikariak borondatezko eszedentziaren ondoren jarduteko zerbitzura bueltatzea 2017ko urtarrilaren 23tik aurrera	
6	2017/01/20	Turismo bulegoko langilearen baten amatasun baja harreran hartzeagatik	
7	2017/01/23	Udal erroldan baja ematea	


Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.

9.- Eskariak eta galderak.

Jose Luis Albizu zinegotziak herrian egoten den eskale baten osasun egoeraren berri eman du. Marilu Albizu zinegotziak esan du, eskualde mailan zentro bat egon beharko litzatekeela etxegabeentzako baina tamalez ez dagoela.

Maidar Zubikarai zinegotziak galdetu du 2017ko aurrekontu-proiektuaren inguruan. Erantzun zaio otsailerako gertu egongo dela.

Maidar Zubikarai zinegotziak galdetu du 2015 urtean Udalbiltzarekin sinatutako eta bertan jasotako kopurua ordaintuta ez egotearen inguruan.



DEBAko UDALA

Iñaki Esnaola zinegotziak erantzun dio, ez dela ordainduko eta gaia arraroa izan dela. Hitzarmena 2015eko martxoaren 8an sinatu zen eta bertan jasotzen bazen ere, hitzarmena sinatzearekin bat ordainduko zela, ez zen ordainketa gauzatu. Beraiek kargua 2015eko maiatzean hartu zutenean ez zuten hitzarmenaren berri eduki eta 2016 urtean ez zegoen partidan diru zuzkidurarik. Gaineratu du, kopuruaren erreklamazio ofizialik ez dela egon.

Maiderek erantzun dio, ez ordaintzea erabaki politikoa dela eta 2015 urtean, hitzarmena sinatu ondoren hitzarmena ez zuela ordaindu kontuhartzailleak eta aurrekontuaren likidazioa jasotakoan ez zirela konturatu ordaintzeke zegoela. Gaineratu du, Udalbiltzak udal kontuhartzailletza eta idazkaritza zerbitzuekin jarri dela harremanetan ordainketa ezaren inguruan.

Maiderek bideen inbentarioaren 2. fasearen onarpenaren inguruan galdetu du. Alkateak erantzun dio, behin alegazioak jasota, horiei erantzuna emateko txostena jaso dela, Hirigintza batzordean landuko dela eta otsaileko udalbatzarraren gai zerrendan jasoko dela behin betiko onarpen proposamena.

Maiderek hotelaren eta Casinoaren inguruan galdetu du. Alkateak Casinoaren inguruan dagoenaren berri eman du eta hotelaren inguruan ezer berririk ez dagoela adierazi du.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.



Deban, 2017ko urtarrilaren 26a

IDAZKARIA